

BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

559

19/2025 DEKRETUA, urtarrilaren 28koa, zeinaren bidez kredituak txertatzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2025eko Aurrekontuan, EAEk bere gain hartu dituelako itsasertza antolatu eta kudeatzeko esparruan Estatuak eskualdatu dizkion eginkizunak eta zerbitzuak.

Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginaren 75. artikulua (Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen du), zeina maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu baitzen, honako hau ezartzen du: Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen edo zerbitzu berriak eskuratzen baditu Estatutik, eskumen-aldaketaren ondorioz sortutako betebeharrak eta likidatuko diren ekonomia-eskubideak betetzeko behar diren kredituak txertatu beharko dira aurrekontu orokorretan. Halaber, Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian azken aldiz argitaratu eta hogeiei egun baliodun igaro baino lehen, Jaurlaritzak eskumen edo zerbitzu berriari dagozkion gastuen eta sarreren egoera-orria onartuko du eskumenaren edo zerbitzuaren transferentzia gauzatu den ekonomia-ekitaldia amaitu arte gelditzen den aldirako.

2024ko abenduaren 30eko Estatuko Aldizkari Ofizialean, abenduaren 23ko 1310/2024 Errege Dekretua argitaratu zen, itsasertza antolatu eta kudeatzeko esparruan Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoa. 2024ko abenduaren 30eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, abenduaren 23ko 490/2024 Dekretua argitaratu zen, zeinaren bidez onartzen baita aipatutako arloari dagokionez Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak 2024ko abenduaren 16an hartu zuen erabakia.

Ondorioz, Ogasun eta Finantzetako sailburuaren eta Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2025eko urtarrilaren 28an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Kredituak txertatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2025eko aurrekontuan.

1.– 200.920,00 euroko gastuen egoera-orria onartzen da, betebeharrak hauei aurre egiteko behar den zenbatekoaz osatua: itsasertza antolatu eta kudeatzeko esparruan Estatutik hartutako eginkizunak eta zerbitzu berrien ondoriozko betebeharrak.

2.– Jasotako eskumen berriari dagokion sarreren egoera-orria 200.920,00 eurokoa da.

3.– Aurreko apartatuetan aipatzen diren sarreren eta gastuen egoera-orriak 2025eko apirilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra arteko aldiari dagozkio. Honela xehatzen dira:

Gastuak:

7110 programa. Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza. Egitura eta Laguntza.

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
7110	201.00	1.913,00
7110	218.00	3.500,00
7110	618.00	29.000,00
	Guztira	34.413,00

5151 programa. Portuak.

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
5151	120.00	98.277,84
5151	160.00	27.630,46
5151	161.01	3.195,94
5151	130.00	37.402,76
	Guztira	166.507,00

Diru-sarrerak:

9111 programa. Foru-aldundien ekarpenak.

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9111	420.00	32.228,00
9111	421.00	67.489,00
9111	422.00	101.203,00
	Guztira	200.920,00

2. artikulua.– Kredituak txertatzeak zer ondorio dakarren.

1.– Ogasun eta Finantza Sailak aurreko artikuluan aipatu diren gastuen eta sarreren egoera-orriak integratuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko Aurrekontuan, dagozkion ondorio juridikoak izan ditzan, eta, bereziki, egoera-orri horien kontabilitatea, exekuzioa eta ondorengo likidazioa egoki gauza daitezzen.

2.– Urriaren 7ko 4/2021 Legearen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuak finantzatzeko foru-aldundiak egin beharreko ekarpenak zehazteko eta baliabideak egoki banatzeko metodologia onartu zen 2022-2026 aldirako; bada, metodologia horren 8. artikularen 1. apartatuan xedatzen denarekin bat etorritik, Kupoaren metodologiatik datozenei –aipatutako metodologiaren 2. artikuluan zehaztuak– beste kenkari gehigarri bat egingo zaie 2025eko ekitaldian, 200.920,00 eurokoa.

3.– Aurreko zenbakian adierazitako metodologiaren 8.3 artikulua xedatutakoarekin bat etorriz, eta eskualdatze berriak finantzatze aldera, foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari ekarpen espezifikoko osagarri bat egingo diote 2025eko ekitaldian; 200.920,00 euroko ekarpena, hain zuzen ere.

4.– Aurreko 2. eta 3. zenbakietan adierazitako ondorioak egun honetatik aurrera aplikatuko dira: itsasertza antolatu eta kudeatzeko arloko eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea eraginkorra den egunetik aurrera.

3. artikulua.– Kupoan minorazio bat aldatzearen ondorioak.

1.– Apirilaren 3ko 10/2023 Legeak Euskadiko Kupoaren zehazteko metodologia onartu zuen 2022-2026 bosturterako; bada, metodologia horren 11. artikulua eta bi apartatuen arabera, 2025eko ekitaldiko kupo likidoaren minorazio efektiboaren ondoriozko emaitza izango da behin betiko zenbatuko dena dekretu honen aurreko artikulua 2. zenbakian aipatutako kenkari gehigarrian.

2.– Emaitza hori bera zenbatuko da, halaber, dekretu honen aurreko artikulua 3. zenbakian aipatu den ekarpen espezifikoko osagarrian.

3.– Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantza Sailari artikulua honetan ezarritakoa aplikatzearen ondorioz egin behar den aldaketa oro egiteko.

4. artikulua.– Eusko Legebiltzarrari jakinaraztea.

Ogasun eta Finantza Sailak, Eusko Jaurlaritzaren izenean, Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari jakinaraziko dio dekretu honetan xedatutakoaren babesean egindako kreditu-kontsignazioa.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2025eko apirilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. Une horretan, hain zuzen, indarrean jarriko da dekretuan aipatzen diren eta eskualdatu diren eginkizunak eta zerbitzuak gehitzea.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko urtarrilaren 28an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Ogasun eta Finantzarako sailburua,
NOËL D'ANJOU OLAIZOLA.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
AMAYA BARREDO MARTÍN.